

EUSKAL PRESOK. Espetxeko funtzionario eta ertzainek pareta bat igotzen atzeman zuten

Agentziak | GASTEIZ

Igor Solana Matarranz euskal preso Langraizko (Araba) kartzelatik ihes egiten saiatu zen atzo goizaldeko 04:00etan, baina espetxea zaintzen duten funtzionario eta ertzainek atzeman egin zuten, modulotik irten baino lehen. Solana duela egun batzuk ekarri zuten Langraizera, Valdemoroko kartzelatik, asteazkenean Bilbon intsumiso iza-teagatik epaiketa zuelako.

Solana segurtasun modulo batean zegoen, bakarrik, beheko solairuan. Ziegako leihoaren barra zerratu zuen eta patiora irten zen bertatik. Han kirola egiteko erabiltzen den horma-barra bat erabili zuen pareta bat igotzeko eta handik jaisteko elkarri lotutako maindire batzuek baliatzeko asmoa zuen. Espetxeko iturriek jakinarazi zuten, une horretan konturatu ziren ihesaldi saioaz espetxeko funtzionarioak eta zaintza lanak egiten dituzten ertzainak. Ertzaintzak adierazi zuenez, pareta hori jaistea lortuta ere kanpora irteteko beste bat pasatu behar zuen segurtasun sistemaz gain.

Atxilotu ondoren, Solana beste ziega batean sartu zuten eta, espetxeko zuzendariak azaldu zuenez, atzo bertan eraman behar zuten preso hori Valdemoroko kartzelarantz.

Zerraren jatorria ikergai

Espetxeko arduradunen aldetik, Solanaren ihesaldi saioaren inguruan sorturiko kezka nagusia leihoa zerratzeko erabili zuen zerra nondik atera zuen jakitea da, eta horretara bideratu zituzten ikerketak atzo. Ihesaldia ondo pentsatuta zegoela iritzi diote ikerketa iturriek eta kanpoko laguntza jaso izatea li-tekeena dela, baina, atzo azaldu zuten, ez dute daturik hori baieztatzeko.

Zerrari dagokionez, bi hipotesi zabaldu zituzten ikerketa itu-

Igor Solana preso Langraizko kartzelatik ihes egiten saiatu da

Ziegako leihoaren barra zerratu zuen eta handik patiora irten zen



rriek: lehenengoa asteazkenean Bilbon eginiko epaiketara joan zenean helarazi ziotela Solanari, eta bigarrena espetxe barruko beste presoren batek eman izatea. Lehenengo hipotesia izan balitz Solanak segurtasun neurriak eta miaketa gaudituta eta zerra sartzea lortu izango lukeela azaldu zuten.

Jaime Mayor Oreja Espainiak Barne ministroak Langraizko espetxeko segurtasun neurrien «funtzionamendu ona» nabarmendu zuen. Hala ere, onartu zuen uneren batean akatsen bat izan dela, Solanak nolabait lortu baitzuen zerra. «Segurtasun

DATUA

Dirua eta planoak soinean

Solanak ihes egiteko unean 50.000 pezeta zituen sakelean, diru-paperean, espetxeko iturriek azaldu zuten. Horretaz gain, bi plano ere bazituela kaleratu zen, haietako bat Gasteizkoa, eta bestea, espetxekoa eta inguruetakoa. Azken horretan zenbait erreferentzia puntu ageri omen ziren, tartean Zadorra ibaia. Zenbait telefono zenbaki ere bazituela azaldu zuten iturri horiek.

neurri guztiak gutxi dira eta haiek fintzeko lanean jarraituko dugu», adierazi zuen.

Carlos Iturgaitz EAEko PPko lehendakaria pozik agertu zen eta Solana bere «habitat naturalera» itzuli zela esan zuen. Rodolfo Ares PSE-EEko legebiltzarkideak Ertzaintza zoriondu zuen ihesaldia ekiditeagatik.

Igor Solana iazko urriaren 16an atxilotu zuten, Sevillan, Harriet Iragirekin, Antonio Muñoz Cariñanos mediku militarren kontrako atentatuaren ondotik. Atentatu horretaz gain, Andaluzian izaniko beste zenbait leporatzen dizkiete.

NOAIN

Artxibatu da UPNko zinegotzi bati erasotzeaz akusaturiko bi gazteen auzia

Erredakzioa | IRUÑEA

Nafarroako Noain herrian UPNko zinegotzi baten aurka eginiko sabotajeagatik 1999ko urrian kartzelatu zituzten herriko bi gazteen auzia artxibatu egin du Entzutegi Nazionalak, Gara egunkariak atzo kaleratu zuenez. Gertaera haiez geroztik Noainen giroa dezente gaiztotu zen. Orain gazteok jasandako «polizien eta komunikabide batzuen jukutria» salatzeak kanpaina hasiko dute.

Noaingo UPNko zinegotzi baten etxeko eskaratzearan etxean egindako lehegailua zartatu zen 1999ko irailaren 29an. Aste baten buruan Miguel Angel Llamas eta Jon Erro gazteen atxiloketa eta kartzelatzea ekarri zuen jazotakoak. Teresa Palacios epaileari sabotajea gertatu zenean lehena ikastetxean eta bigarrena lantokian zeudela zioten frogak eta lekukoak azaldu arren, hark espetxeratu egin zituen, 9 egunez. Ondoren aske utzi zituen milioi erdi pezetako bermearekin. Epaileak «hiltzeko saioa, terrorismoa eta sutea sortzea» leporatu zien.

Gertaerok herriko giroa gaiztotu zuten. Udaleko lau kidek kargua utzi zuten, horien artean Julian Arranzek, UPNko alkateak, Miguel Sanz alderdiko presidenteak aferan izandako jarrerarekin ados ez zegoela esanez.

Jazotakoa gaitzesteko egindako udal bilkura berezi batean erregionalistek eta IUN-NEBko kideek herriko talde independente eta abertzalearen aurka irainak eta akusazio gogorrak egin zituzten. Halaber, atxiloketak egin ziren egun berean, sabotajea salatzeak Noainen egin zen manifestazioak herria gehiago zatitu zuen. Geroztik, kartzelaratutako bi gazteak eta haien familiak hainbat «irain eta mehatxu» jasan izan dituzte. Orain gertaera horiek ekarri dituzten ondorioak eta Poliziaren jarrera salatzeak kanpaina hasiko dute herri horretan.

Iñaki Graciari soilik semearen bisita onartu diote duela lau hilabete kartzelatu zutenetik

Erredakzioa | DONOSTIA

La Santeko (Frantzia) espetxean dagoen Iñaki Gracia preso errenteriarri oraindik bere anai-arreben bisita galarazten diotela salatu zuten atzo Senideek. Bertako kideek adierazi zuten, iazko irailaren 15etik, atxilotu zutenetik, soilik bere semearen bisitak baimentzen dizkiote espetxeko funtzionarioek, eta, ondorioz, azkeneko bost hilabeteetan ez du izan bere semea ez den inorekin ego-

teko aukera, ez eta anai-arrebe-kin ere, are gutxiago lagunekin.

Horrez gain, Senideek salatu zuten Badajozko (Espainia) espetxean dagoen Karlos Torrecilari joan zen astean proba batzuk egiteko asmoz erietxera eramane zutenean esku burdin bikoitzak jarri zizkiotela.

Halaber, Dueñasko espetxeko euskal presoen bizi-baldintzak okerrera egin dutela azpimarratu zuten Senideek. Hala, hilean behin bakarrik uzten dieteko presoei paketea jasotzen, bi

jantzi soilik sartzen uzten dieteko, hilean hiru gutun bakarrik bidaltzeko eta, gainera, gutun guztiak ikusten dituzte oso zorrotz. Hala ere, komunikazio esku-hartze zorrotzaren telefono deietan egiten dela azpimarratu zuten atzoko oharrean. Senideen arabera, azkenaldian telefono deiak grabatzen dituzte. Jokin Urain presoak bere senitartekoak ohartarazi zituen horretaz, eta oharpen hori egitearen ondorioz zigortu egin dute presoak.

Estradizioen aurkako protesta ugari

Senideek jakitera eman zuten, azken asteotako estradizioen aurkako protesta ugari egin dira Euskal Herriko eta Espainiako kartzelatan. Hala, Martutene, Navalcamero eta Alcalako presoek elkarretaratzeak egiteaz gain, espetxeko janariari uko egin zioten.

Ordiziara plataformak elkarretaratze isila antolatu du bihar-ko 20:00etan Ordiziako Plaza Nagusian, zigorraren hiru laurdenak beteak dituzten Eugenio Irastorza eta Andoni Urrestarazu presoaren alde.